

# 4

## Arnas-estutik urbietara<sup>1</sup>

Iker Salaberria Urkizu

*Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUA*ren Ildoen Koordinatzailea  
iker@kontseilua.eus

Sarrera-data: 2014-04-15 / Onartze-data: 2014-06-05

**Laburpena:** 2010ean hasi zen Kontseilua arnaguneen gaia lantzen horretarako lan-taldea eratuz. Bertan partaide izan ziren Bertsozale Elkarte, EHE, EMUN, Euskaltzaleen Topagunea eta UEMA. Eginiko gogoe-taren helburua garbia izan zen, arnaguneen inguruko lan-jarduna egituratzea, ahalik eta oinarri teoriko sendoena eta zorrotzena abiapuntu izanda, baina, baita ekintzara bideratutako edota operatibo egiteko oinarria izatea. Arnaguneen gaiari euskalgintzatik zer-nola heldu diogun eta gogoeta horietatik dinamikak zer nola abiatu dituen hobeto ulertzeko argibideak ematen saiatuko gara hemen. Bai eta probokazio intentzio guztia duten proposamenak ere. Gurea beraz, zientziatik, intuiziotik eta gogoeta partekatutik osatutako ekarpen aplikatua duzue. • **Gako-hitzak:** *arnagunea, bizindar etnolinguistikoa, pentsamendu konplexua.*

**Abstract:** In 2010 Kontseilua (the Council of Organisations supporting the Basque language) started working on the subject of breathing spaces by setting up a working group for the purpose. It had the participation of the Bertsozale Elkarte (Association of Extempore Basque Verse-makers), the EHE (Association supporting Basque in the Basque Country), EMUN (Organisation promoting Basque in the workplace), the Euskaltzaleen Topagunea (Meeting point for Basque Language Loyalists) and UEMA (Association of Basque-speaking Municipalities). The aim of the reflection made was clear: to structure work on the breathing spaces, the starting point being a theoretical base that was as consolidated and rigorous as possible, but a base designed for action and to be operative. Here we will be endeavouring to provide explanations to better understand how we have approached the subject of breathing spaces from the Basque language activity perspective, and how we have started the dynamics out of these reflections. In addition, there are proposals that have every intention of provoking as well. So ours is an applied contribution made up of science, intuition and shared reflections. • **Key Words:** *breathing space, ethnolinguistic life force, complex thought.*

Imagina ezazu zeure burua mendi malkartsu bateko maldan gora. Jo dezagun, Aizkorriko tontorrera bidean, azken malda gogorretan gora zoazela. Tontorra bistan da, baina, igotako maldek, hankak ahuldu dizkizute eta arnas estuari buelta eman ezinik zabiltza. Halere, badakizu, paisaiaren gozamenak eta jarritako helmuga eskuratzek emango dituzten gozamenak atzean utziko dituela bidean igarotako une txarrak, eta arnasa sakon hartuta, bideari ekin diozu berriro.

Mendizale baten ohiko sentipenak diruditen arren, gu guztiok, euskaldun guztiok alegia, bizitako sentipenen oso antzekoak direla esango nuke. Erdara nagusi den eremuetan, tabernara sartzean edo erosketak egitean edo udaltzain batekin... erdaraz hitz egiteko joera 'normalari' edo 'arruntari' aurre egin eta euskaraz hitz egiten saiatzen garenean batean eta bestean. Izen bat ere merezi izan du fenomeno horrek eta 'estres linguistiko'<sup>2</sup> gisa izendatua ikusi genuen, Badu Badako erakusketan. Estresa edo arnas estua, nekea edo tentsioa, antzera senti litezke, halako egoerak egunero behin eta berriz bizitzea egokitzen zaizkigunean. Euskaraz bizi nahia mendiaren gailurra bihur liteke. Helburua eta mendizale askorentzat den bezala, bizitza ulertzeko eta bizitzeko modua. Gailurrera heltzen garenean, atsegin eta gozagarri, baina bidea, malkartsu eta nekagarri.

Badira ordea, oso bestelako eremuak. Arnas esturik gabe, nekerik gabe, maldarik gabe, Urbiako zelaien modukoak. Leku horietan, hankak arin ibili ditzakegu eta arnasa sakon hartu. Luze ibili gaitezke asko nekatu gabe. Urbiako zelaietan bezala, euskaldunak ez dugu eragozpenik ez eta tentsiorik sentitzen euskaraz 'normaltasunez' aritzeko. Tabernan, erosketetan, udaltzain batekin... euskaraz hitz egitea normala, arrunta, ohikoa baita. Halakoak izaten dira arnasmuneak. Euskaldunontzat maldarik gabeak, arnasa lasai hartzeko modukoak.

## KONTSEILUA ETA ARNASGUNEAK

I

2010ean hasi zen Kontseilua arnasmuneen gaia lantzen. Ohikoa denez, Kontseiluaren bazkideen artean gaiari heltzeko interesa nork izan zezakeen galdetzea izan zen lehen urratsa. Horri erantzunez, arnasmuneen lan-taldea eratu zen. Ondorengoak dira bertan partaide:

Bertsozale Elkarteak, EHE, EMUN, Euskaltzaleen Topagunea eta UEMA.

Artikulu honetan jasotakoak lan-talde horretan eginiko gogoeta partekatuak ditu oinarri. Sinatzailea bakarria izanagatik beraz, ezin egi-letza pertsona bakarrari esleitu.

---

**Bi definizio jaso: euskaldunen kontzentrazio demografikoa eta generazio arteko transmisioa ematen diren guneak batetik eta; demografia aldetik euskara "bere kabian" sentitzen den bilgunea, inork xaxatu eta eraso gabe "etxeko jaun" sentitzen den eremua.**

Eginiko gogoetak helburu garbia izan du, arnaguneen inguruko lan-jarduna egituratzea. Horretarako noski, ahalik eta oinarri teoriko sendoena eta zorrotzena abiapuntu izanda, baina, ekintzara bideratutako edota operatibo egiteko oinarria betiere. Horrekin zera esan nahi da, ez dezala inork gure ekarpenean lan zientifiko zorrotz, akademikorik bilatu. Arnaguneen gaiari euskalgintzatik zer-nola heldu diogun eta gogoeta horietatik dinamikak zer nola abiatu ditugun hobeto ulertu nahi badituzu, horretarako argibideak ematen saiatuko gara hemen. Bai eta probokazio intentzio guztia duten proposamenak ere. Gurea bezaz, zientziazatik, intuiziotik eta gogoeta partekatutik osatutako ekarpen aplikatua duzue.

Horrela, arnaguneak zer diren eta zergatik duten garrantzia arakatzea izan zen lan-taldeak eginiko lehen gogoeta. Gogoeta hau abiatzeko iturri desberdinetatik edan genuen: jatorrizko definiziotik, kontzeptu bertsuaren bestelako definiziotatik, ikuspegi sistemikotik, pentsamendu konplexutik, intuiziotik... Hauetatik guztietatik ikasitakotik, lehen aipatutako bidetik, euskalgintzaren lan-jarduna garatzeko baliagarrik diren zenbait ondorio atera genituen.

Kontzeptuaren iturrira joanda, Zalbide aipatu behar. Bera baita kontzeptuaren sortzailea. Izena berak emanagatik, izana beti aitortu izan dio Fishmani. Azken honi bi definizio jaso izan dizkio arnaguneei buruz hitz egiteko garaian: euskaldunen kontzentrazio demografikoa eta generazio arteko transmisioa ematen diren guneak batetik eta; demografia aldetik euskara “bere kabian” sentitzen den bilgunea, inork xaxatu eta eraso gabe “etxeke jaun” sentitzen den eremua (Zalbide, 2009), bestetik. Horiek horrela, guk lotura estua ikusi izan diogu, euskalgintzako ordezkari batek baino gehiagok erabili izan duen Gramscik hedatutako hegemonia (Gramsci, 2007) kontzeptuarekin. Edota hitz lauagoak erabiliz, euskara nagusia den edo normalizatua dagoen eremuekin. Kontzeptu desberdinak eta bakoitzak bere ñabardurak beharko lituzkeenak, baina dudarik ez, antzeko fenomeno edo errealitatea deskribatzeko balioko luketenak.

Arnaguneen ohiko irudia herri euskaldunena izan da: Aramaio, Azpeitia, Leitza, Lekeitio, Lakarra... Baina, herri edo eremu geografikoez gain, bada arnagunetzat kontsidera genezakeen beste esparru bat, espazio soziofuntzionalena edo jardunguneena, hain zuzen ere. Bada halako hainbat espazio zeinetan euskaldun ugari biltzen diren eta bertako hizkuntza ohikoena, nagusia, euskara den. Halakoetan, esparru horietan ere bertakotzeko, partaide normala sentitzeko, euskara behar dela sumatzen da. Hori transmititzen da. Horiek esanda, akaso errazagoa suer-

tatuko da, halakoak imaginatzea: Elay enpresa, Bilboko Kafe Antzokia edota zuen herriko ludoteka, ziurrenera. Horiei buruz ari gara, arnasmunetzat jo ditugun espazio soziofuntzionalak aipatutakoan. Noski, horiek ugaritu ahala, halako espazioak elkarren ondoan bildu, lotu, ahala, auzo oso bat, herri oso bat, edo eskualde oso bat, bihur liteke hasieran aipatutako arnasmunegune geografiko.

Bateko zein besteko arnasmuneguneez hizkuntza erabilerarako gizarte arau batzuk, inplizituak izanik ere jendearen portaeran eragiteko eraginkorrak direnak, transmititzeko gaitasuna dute. Nolabait, Gotzon Garatek hainbatetan aldarrikatu zuen bezala, euskara beharrezko (Garate, 2006) egiten da eremu horietan. Normalena euskaraz jardutea izanik, eremu horretara bertaratzen den edonork, hori sumatzen du eta bere jarduna leku horretara egokitze euskaraz aritu beharra sentitzen du.

Badirudi, kontzeptu berria izanik, proposamen berritzaileak egiten aritu gaitzkeela lerrootan, baina, arnasmuneguneez lanketa kontu berria al da? Inondik inora ere ez. Zertan oinarritu izan da ba euskalgintzaren jarduna azken 50 urtean, arnasmuneguneez sortzean ez bada? Garai bateko ikastoletatik abiatuta, euskarazko hedabideak, euskarazko kultur produktzioa, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea, lantegien euskaraplanak, ... zer dira ba horiek guztiak arnasmuneguneez sortzeko eta indartzeko saioak ez badira? Egungo ikuspegitik esatea gainera, erraza suerta liteke, baina, garai batean, eremu edo espazio euskaldunak baino, elebidunak bultzatu behar diren tesia indartsu zebilenean, euskalgintzak hautu egokia egiten asmatu zuela esan genezake. Arnasmuneguneez teoriaren inolako ezagutzarik izan gabe ere, garai hartako ezagutzak eta intuizioak egoki funtzionatu zuten erakusle, dudarik gabe.

## ARNASGUNEAK ETA LEHENTASUNAK

### I

Esandakoen ondotik, arnasmuneguneez kontu honek guztiak eman al diezaguke euskararen normalizazio prozesuari begirako argibiderik? Arnasmuneguneez garrantzia dutela, honezkero erraz xamar onartu litekeen baieztapena izanda ere, euskalgintzaren jardun-estrategian ondoriorik ba al dakar horrek?


Lehentasan kontuetan sartu aurretik, ordea, egin dezagun beharrezko oharra. Izan ere, lehentasan finkatzea ariketa zaila denez, hauetua egitea eta zer edozer, bigarrentasun gisa kokatzea eskatzen duenez, esan dezagun, ez dela gustuz egiten den ariketa. Baliabideen urritasunak aginduta egiten dena, baizik. Baliabideetan aberatsago izango bagina, baliabideak eta indarrak zeregin guztiei heltzeko moduan bagenu, ez

**Arnasguneen  
ohiko irudia  
herri  
euskaldunena  
izan da. Baina,  
bada  
arnasgunetzat  
kontsidera  
genezakeen beste  
esparru bat,  
espazio  
soziofuntziona-  
lena edo  
jardunguneena,  
hain zuzen ere.  
Bada halako  
hainbat espazio  
zeinetan  
euskaldun ugari  
biltzen diren eta  
bertako  
hizkuntza  
ohikoena,  
nagusia, euskara  
den.**

genuke zertan lehentasun konturik behar. Baina, errealtate gordinak halako mugak jartzen dizkigunez, hobe lehentasunak finkatzea eta eraginkortasunez jokatzeari, guztiari erantzun nahi izateagatik, inolako eraginkortasunik ez izatea baino.


Horiek esanda, ariketari hel diezaiogun atzekoz aurrera. Alegia, ikus dezagun lehenik hizkuntza galera prozesuaren ohiko irudia.

1. irudia. Euskararen galera prozesua



Ezaguna denez, eta logikak agintzen duen bezala, eremu erdaldunetatik hurbilen bizi direnak, erdararen are eta eragin nabarmenagoa jasaten dute. Horrela, euskara galtzen lehenak horiek izan ziren. Kipularen irudia hartuko bagenu, kanpoko geruzetatik barrurantz doan galera prozesua dela esan genezake. Horrela, prozesua herri erdaldunetan euskara guztiz galduaz eta euskaldunetan erdara pixkana sartuaz, nagusi bilakatu arte, ematen da. Irudi batera ekarrita horrela adierazi genezake:


2. irudia. Herri tipologiak ezagutza-tasaren arabera (%). Euskararen galera-prozesua



**Arnasguneak inguruko eremuetara hedatzen doazen, eta horrela, inguruko eremu horiek arnasegune bilakatzen doazen ikusteak, edo alderantziz emango digu normalizazio prozesuaren erradiografia gordina.**


Ohikoa izaten da gutxi gehiago, izaera sozionlinguistiko desberdinetako herriak ere geografikoki tipularen geruzen modura sakabanatuta egotea. Alegia, eremu erdaldunenak eta euskaldunenak geografikoki urrundu xamarrak egotea eta bien tartean, beste tipologietakoak egotea. Noski, hau ez da beti betetzen, izan ere, herrien arteko harreman naturalak zer nola eman izan diren (nork norekin izan ohi duen harreman gehiago) eta herri bakoitzean eragina izan duen hizkuntza-politika ere adierazgarria baita herrien bilakaera sozionlinguistikoaren argitan. Hona, esandakoaren erakusgarri, euskararen gaitasun-datuaren arabera Euskal Herriko irudia:

3. irudia. Euskara gaitasunaren arabera Euskal Herriko mapa



Beraz, hizkuntzaren atzeraldia kanpotik barrura, kanpoko geruzetatik bihotzerantz (edo biriketara esan genezake, akaso) ematen den prozesua izanik, pentsatzekoa da normalizazio prozesua kontrako norabidean emango dela. Alegia, eremu euskaldunen edo arnaguneen hedatzea izan beharko duela. Aurrez aipatu bezala, euskararen normalizazioaren ikuspegitik garrantzitsutzat jo ditugun eremu horiek, indarguneak dira finean, bizindar etnolinguistiko handiko eremuak eta hain zuzen, bizindar horixe ingurura hedatzeko oinarri berebizikoa da. Horregatik diogu, arnaguneak normalizazio prozesuaren abiapuntu eta helmuga direla. Abiapuntu indartsuena izateaz gain, Euskal Herriko gainerako eremuak arnagune bihurtzean baitatza euskararen normalizazioa.

4. irudia. Herri tipologiak ezagutza-tasaren arabera (%). Euskararen normalizazio prozesua



Ondorengo urteetan beraz, arnaguneak inguruko eremuetara hedatzen doazen, eta horrela, inguruko eremu horiek arnagune bilakatzen doazen ikusteak, edo alderantziz, arnaguneak euren izaera galtzen eta erdalduntzen doazen ikusteak, emango digu normalizazio prozesuaren erradiografia gordina. Inguru horietan asko dago jokoan. Horregatik, arnaguneak eta arnagune izateko aukeran dauden eremuak, euskararen normalizaziorako eremu intentsibotzat hartu beharko lirатеkeela deritzogu. Are gehiago, bere garaian arnaguneen garapen soziokulturala eta sozioekonomikoa bultzatzeko UEMA sortu zen bezala, arnagune izateko aukeran diren eremuak bilduko lituzkeen eta UEMAREN antzeko funtzioa beteko lukeen erakunde baten premia dagoela esango genuke. Horra erronka, norbaitek hartzea komeniko litzatekeena.

Hortaz, arnaguneak eta arnaguneen izateko aukeran dauden eremuak soilik al dira eta bere horretan lehentasunezko landu beharreko

eremuak? Ez, alajaina! Bada gure ustez, bestelako lehentasunik ere. Uste dugu hiriburuak eta eskualde-buruak ere badutela izaera hori. Batetik, Euskal Herriko populazioaren parte handiena halakoetan biltzen delako eta bestetik, eremu horiek inguruko herriengan eragin nabarmena dutelako. Izan ere, Euskal Herrian oro har (Gipuzkoa salbuespena izan daiteke) eraiki den lurralde antolamendu ereduak, herrialdeak hiriburuen bueltan egituratzea ekarri baitu nola zerbitzuen, hala garraio-bideen ikuspegitik. Horrek, dudarik gabe, hiriburuen eragina biderkatzen du.

*Eta beste eremuetan ez al da ba zereginik?* galde dezake baten batek. Ez genuke, inondik inora halakorik adierazi nahi ordea. Hasieran aipatu den bezala, lehentasun kontuetaz aritu gara hemen. Lehentasunak gainera, ikuspegi geografiko batetik landu ditugu. Beste eremuetan ere bada zeregin ugari, eta gainera, beste eremuetako zeregin nagusia arnaguneen ikusmiratik ere uler liteke. Kasu horretan, gainerako eremuetan arnagune soziofuntzional berriak sortzean eta indartzean kokatzen baitugu guk gakoa, hain zuzen. Ikastola, euskaltegia, aisialdi taldea, kirol taldea, ... Arnaguneak sortzen eta hedatzen joan beharra lekuan lekuko egoerak eta ahalmenak oinarri hartuta.

## ARNASGUNEAK ETA KOMUNIKAZIOA

Euskararen normalizazio prozesua dudarik gabe gizarte eraldaketa prozesu sakona da. Ehundaka, milaka pertsonen portaerak aldatu behar dira euskara normalizatuko bada. Halako gizarte eraldaketa prozesuetan komunikazioak berebiziko garrantzia du. Thomas-en teoremak dioten bezala, 'pertsonen egoerak errealak balira bezala definitzen badituzte, egoera horiek errealak dira beren ondorioetan' (Thomas, 1928). Hortaz, pertsonen pentsamenduan eta ikuskeran eragiteak euren portaeran aldatetako ekartzen ditu. Pentsamenduan, ikuskeran edo garai batean maizago erabili ohi zen ideologian eragiteko, komunikazioa dugu, bere zentzurik zabalenean ulertuta, bitarteko nagusienetakoa.

Horretarako, argi dago ordea, komunikazioak eragin egin behar duela. Inorengana heltzen ez den, inolako emoziorik sortzen ez duen komunikazioak, nekez lortuko du inoren pentsamendua edo ikuskera moldatzea eta are gutxiago portaera aldatzea. Beraz, komunikazio 'neuroak' ez du helburu horretarako balio.

Horiek esanda, zein lotura du horrek guztiak arnaguneekin? Lehen-lehenik, kontzeptua beraren erabilera legoke. Aipatu ditugun fenomenomemok, errealitate edota eremuak definitzeko egokia al da arnagune izendapena erabiltzea?

---

**'Arnaguneak',  
errealitate hori  
egoki definitzeaz  
gain, batez ere  
komunikazioaren  
aldetik, egokia  
den da galdera.  
Alegia, jendeari  
zerbait  
iradokitzen ote  
dion eta  
iradokitzen dion  
hori egokia ote  
den euskararen  
normalizazioaren  
ikuspegitik.**



***Arnasguneak,  
arnasa lasai  
hartzeko guneak  
iradokitzen ditu.  
Gune lasaiak,  
ingurune  
naturalak.  
Arnas-estuko,  
estres-  
linguistikoko  
guneetatik  
arnasguneeta-  
rako bidaia  
gozagarria  
irudikatzen du.***

Azal dezagun hemen adierazi nahi dena G. Lakoff-en (2007) eskutik, adibide batekin: George W. Bush Etxe Zurira heldu zen garaian ‘zergak arintzea’ ideia erabiltzen hasi zen. Noski, zergak jaisteko asmoa zuen (errenta altuena zutenei batez ere) eta horri buruz ari zen. Aldiz, arintzeaz hitz egitean, zergak zama gisa irudikatzea lortzen zuen. Hortaz, ez zen egin behar zuenaren deskribapen hutsera mugatzen. Sortu zuen kontzeptuak jendearengan eragin bat sortzea bilatzen zuen. Zergak zama, traba gisa ikustea, hain zuzen.

Gurera itzulita beraz, ‘arnasguneak’, errealtate hori egoki definitzeaz gain, batez ere komunikazioaren aldetik, egokia den da galdera. Alegia, jendeari zerbait iradokitzen ote dion eta iradokitzen dion hori egokia ote den euskararen normalizazioaren ikuspegitik. Bistan denez, gure ustez, egokia da, bai. Azal dezagun zergatik.

Argi dugu arnasgune gisa izendatu ditugun eremu horiek onak direla, mesedegarriak direla, euskararen normalizaziorako. Beraz, komunikazioaren ikuspegitik ere elementu positibo gisa irudikatzen asmatu behar genuke. Are gehiago, euskararen normalizaziorako komenigarria litzakete, besteentzat (arnasgune ez direnentzat) desiragarria izatea egoera horretara, izendapen horretara, heltzea. Horiek esanda, eremu horiek definitzeko (gutxienez) beste hiru aukera mahai gainera litezke: euskaldunon kontzentrazio demografiko handiko eremuak, euskararen gune hegemonikoak edota euskara nagusi den guneak. Lehengoaren kasuan, izendapena korrektoa, zuzena izan daitekeen arren, ez da inondik inora adierazgarria. Ez du ezer askorik komunikatzen. Ondorengo bien kasuan berriz, hegemonia eta nagusitasuna hitzak ageri dira. Kasu horretan adierazgarriak, eragingarriagoak dira baina, kontrako jarrerak bultzatzen dituzte. Hegemonia eta nagusitasunak, menderakuntza eta gatazka irudikatzen dituzte. Horregatik beraz, ez zitzaizkigun hain egokiak iruditu. Beraz, Zalbideren jatorrizko izendapenari helduta, arnasguneak izan zen gure hautua. Arnasguneak, arnasa lasai hartzeko guneak iradokitzen ditu. Gune lasaiak, ingurune naturalak. Arnasgune ez diren eremuetan berriz, euskaldunon arnas-estua irudika liteke, erabat eta osoki gustura ezin arnastua euskaraz bizi nahi dugunok. Hasieran eta orain aipagai izan dugun arnas-estuko, stres-linguistikoko guneetatik arnasguneetarako bidaia gozagarria irudikatzen du. Arnasgunearen izendapenak badu azkeneko beste aldeko argudio bat. Honakoa Dabid Anauti (2014) hartu diogu:

“esanen nuke euskalgintzaren espektrora zabal osoan gero eta gehiago erabiltzen den terminoa eta kontzeptua dela, inor bereziki lastu gabe.” (Anaut, 2014: 133)

Beraz, euskalgintzako espektro zabal batek ontzat emaniko eta egokitzen jotako kontzeptua izateak ere oinarri egokia jartzen du honen erabilerarako.

Kontzeptua bera adostea ordea ez da nahikoa, komunikazio estrategia baten oinarriak finkatzeko. Hau da, definitzen den komunikazio strategiaren arabera, argi izan behar da zein ideia-marko elikatu nahi den eta zein ekidin nahi den. Zeri buruz eta nola hitz egin nahi den eta zein gairen inguruko eztabaidak ekidin nahi diren. Hortaz, ematen diren mezuak eta ideiak ongi neurtuak izan behar dute.

## **BABESA VS HEDAPENA**

### **I**

Lan-taldean hasieran dezente hitz egin genuen arnaguneen babesaz. Komunikazio estrategian sakondu ahala ordea, kontzeptu horrekiko zalantzak agertzen hasi zitzaizkigun. Arnaguneen babesaz hitz egiten denean horrek ideia-marko bat eraikitzen du. Kontuan hartu behar da, 'babesa' aipatzen dugunean, jendearen subkontzientean esanahi batzuk ondorioztatzen direla. Lehengo adibidean 'arintzea' hitza erabiliz, zergak zama bezala irudikatzea ondorioztatzen zen, ahalik eta gehien arindu beharreko zerbaiten gisa ikustarazten ditu horrela izendatzeak. Babesaren kasuan, berriz, ahul dagoen zerbaiti buruz ari garen ideia sortzen da horrekin batera. Babesaren ideiak beste eremuetatik arnaguneak babesteko ikuspuntua elikatzen du. 'Horiek behintzat ez ditzagun gal!' irudikapena elikatzen du. Defendatzeko ikuspegia datorkigu burura, harresiak, lubakiak...

Horregatik, ideia-marko hori ez genuen egokitzen jo. Izan ere, gure estrategia arnaguneak mantentzean, horiei eusten baino, horiek hedatzean kokatzen baita. Horregatik, kasu honetan, arnaguneen hedapena litzateke indartu beharreko ideia markoa. Arnaguneak babesteaz baino, beraz, arnaguneak hedatzeaz hitz egin beharko genuke. Arnaguneak hedatzeko ideiak, arnaguneen ondorengo gune soziolinguistikoan kokatzen diren herrien (%50-%70eko ezagutza dutenak) euskararen normalizazioan jartzen du ikusmira. Arnaguneak erdigune izanik, euskararen normalizazioa horietara hedatzean, hain zuzen. Azken hau, beraz, estuki lotzen da aurrez azaldu dugun euskararen normalizazioaren irudikapenarekin.

Beraz, hedapenaren onurak ikustarazteko komunikazio estrategia diseinatu beharko litzateke. Arnaguneen hedapena normalizazio prozesuarekin parekatuz. Hedapena guztiontzat onuragarria dela ikustaraziz. Horretarako, arnaguneak euskaratik eta euskaraz eleaniztasuna

---

**Arnaguneen  
hedapena  
litzateke indartu  
beharreko ideia  
markoa.  
Arnaguneak  
babesteaz baino.**

**Arnasgunetzat  
jotzen diren  
eremu horiek  
geroz eta  
gehiago,  
munduari zabalik  
eta ingurunearen  
eraginpean  
dauden eremuak  
direla.**

egokien kudeatzen duten lekuak direla erakutsiz. Arnasguneak, etorki-zunarekin, modernitatearekin, kulturarekin, bizitzeko leku egokiarekin eta kohesio sozialarekin lotuaz. Horietara bizitzera joatea desiragarri izan litekeen neurrian, horien hedatzea ere desiragarritzat joaz. Jakin badakigu, kontu hauek ñabardura ugari izan ditzaketela baina, lehendik esan bezala, komunikazioaz eta pertsuasioaz ari garen neurrian, euskararen normalizazioaren mesederako komunikazio estrategia egokirako oinarriak proposatzen ari garela ohartu behar da. Kontuan hartuta, noski, horrek eskatzen dituen koherentziaren eta kontsistentziaren printzipioak (Soziolinguistika Klusterra, 2011).

Sakondu eta gehien erabili beharreko ideia-markoa hori izanik ere, arnaseguneak hedatzeaz gain, euren egoera hobetzeko berriazko neurriak hartu beharra dagoela argi dago. Kasu horretan ordea, babesteaz hitz egitea baino, arnaseguneak indartzeaz edo sendotzeaz hitz egitea egokiagozat jo zen.

## ARNASGUNEEN EGOERAZ

I

Gaur gaurkoz ez dugu esku artean arnaseguneen egoeraren argazki oso-rik eskainiko digun azterlanik. Badirudi UEMAREN aldetik epe ez oso luzean halako azterketaren bat egiteko asmoa dagoela, baina, halakorik izan artean, esku artean duguna erabili behar. Esku artean izateko aukera izan dugu, besteak beste, X. Bengoetxeak (2012) Tolosaldeko hainbat udalerriren bilakaera aztertuz eginiko lana. Azterlan honetan inguru hartako arnaseguneen ahultzea ondorioztatzen zen. Ahultze prozesu hori, Fishmanen teorian oinarritutako ondorengo hiru arrazoibide nagusitan kokatzen du egileak:

- **Dislokazio demografikoan:** emigrazio, inmigratio, haur gutxi jaiotzea eta urbanizazio prozesuak eragiten dutena.
- **Dislokazio sozialean:** maila sozialean gora egiteko ordainsari-sistemaren baitan ulertzen dena.
- **Dislokazio kulturean:** gizarte molde berriak eragindako bizi-moduak eta modernizazioak eragiten duena.

Horiek irakurrita, gure ustez, ondorio garbi bat atera genezake. Arnasegunetzat jotzen diren eremu horiek geroz eta gehiago, munduari zabalik eta ingurunearen eraginpean dauden eremuak direla. Hona bide horretan J.M. Odriozolak diglosiari buruzko Bat Soziolinguistika aldizkariko 79-80 zenbakiko artikuluan esandakoa:

[azken hamarkadetatik] ezer garbirik atera baldin badugu, hain zuzen, garai bateko mundu euskaldunaren guztizko desintegrazioa izan da mundu edo mundutxo hura beregaina zen neurrian. Mundu zaharra zen hura, egitura eta antolamenduz, ekonomiaz eta sare sozialez, kulturaz eta sinesmenez, gaurko-arekin zerikusirik ez zuena. Sistema soziolinguistiko zahar hartan, oraingoan ez bezala, Euskal Herriko lurralde batzuetan bederen, euskararen bizitasun etnolinguistikoa aski beregaina zen ahozko kulturaren gizarte-harremanak ehuntzeko jardunean. Idatzizko hizkuntza-erabilera, gauza jakina denez, ez zen funtsezko baldintza euskal sistema soziolinguistiko diglosiko hura bere hartan sortu eta birsortzeko. (Odroizola, 2011: 218)

---

**Hizkuntza-  
politikak ezer  
behar izatekotan  
ikuspegi  
holistikoa du  
beharrezko.**

Garai batean, eremu horietan herri-bizitza autonomoagoa izan baldin bazitekeen ere, azken urteotako inguru horien eta oro har gizartearen eraldaketen ondorioz: errepide-sareak, urbanizazio prozesuak, komunikabideen eta sare sozialen hedapenak... eremu horiek are eta eragin estuagoa bizi dute euren inguruarekin. Iragazkortasun horrek eta gizarte molde berriek, eremu horien beregaintasuna higatu dute.

## ARNASGUNEAK ETA HIZKUNTZA-POLITIKA

Arnasguneetan beste inon baino argiago irudikatzen eta ikusten da egungo hizkuntza-politikaren ikuspegi kamutsa. Arnasguneen hizkuntza-politikak aztertzerakoan emaitza onak eskuratu ohi dituzte. 2010eko udal hizkuntza-politiken azterketan nabarmendu zen bezala, hizkuntza-politikak batez ere ingurune soziolinguistikoaren arabera egokitzen ziren eta arnasguneetan egiten ziren politika aurrerakoiak: 10eko eskala batean 8,2ko puntuazio lortu zuten bataz beste neurtutako 33 arnasguneek<sup>4</sup>. Ez da alferrekoa izan UEMak eremu horretan urteen eginiko lana.

Hori ikusita pentsa liteke, politika egokiak egin izan direla arnasgune guztietan, baina, zenbait arnasguneren bilakaerak kontrakorik erakutsi digu. Kontraesankorra dirudi, hizkuntza-politiken azterketan halako emaitzak eskuratu eta politika desegokiak egin izan direla esateak. Kontraesan horrek badu azalpena argia, ordea. Hizkuntza-politikak ezer behar izatekotan ikuspegi holistikoa du beharrezko. Bada garaia politikaz ikuspegi osoarekin hitz egiten hastekoa. Politikak, herritarren elkarbizitza antolatzeko, guztion ongia bilatzeko jardun gisa ulertuta, hizkuntza erdigunean du ezinbestean. Zer izan da eta da hizkuntza bestela, gizakion elkarbizitza soziala egikaritzeko tresna ez bada? Harremanaren, elkarlanaren premiatik sortuko komunikaziorako bitartekoa, talde izaeraren lotailu eta kide berrietarako transmisio uhala. Argibideak Odroizolaren eskutik hartu ditugu:

**Egungo  
arnasguneetan  
inoiz ezagutu  
gabeko  
informazio eta  
energia fluxua  
ematen da.**

**Horregatik diogu  
egun ghattizazio  
kontuetaz hitz  
egitea  
arnasguneen  
inguruan, erabat  
lekuz kanpo,  
errealitatetik  
kanpo dagoela.**

**Zein tresna izan  
ditzake  
arnasguneak bere  
izaerari eutsi eta  
sistema erdaldun  
nagusiaren  
baitan ez dadin  
asimilatua izan?  
Bada, bi  
helduleku nagusi  
dira aipagai:  
autonomia eta  
auto-antolaketa.**

Oker ez bagaude, elkarlanerako mekanismo horixe da hain zuzen, hots bizitza sozialaren mundua uztartzeko gaitasun horixe, gauzarik aipagarriena hizkuntzaren eginkizunak sailkatzeko garaian [...] Kontua zera da auzi honetan gure iritiz: hizkuntzaren bilakaera eta zeregina ez dela gizabanakoaren bizitza mikrorra mugatzen, eta taldetasunaren kohesioan eta antolamenduan duela oinarritzko funtzioa hitzaren jarduerak [...] bizitza soziala partekatu ahal izateko hizkuntza partekatu behar dugu, ulertzen ez den mintzairan ezin baitugu komunitate-bizitza kudeatu. (Odriozola, 2012: 95, 96, 101).

Ikuspegi horretatik, hizkuntzaren eta politikaren erroak egunero-koan ulertzen dena baino dezentez luze sakonago heltzen direla eta eragiten dutela pentsa liteke. Gutako askoren eguneroko jardunak badu bai, elkarbizitza sozialean eraginik eta hura egituratzetik ugari. Hizkuntza jarduna ekintza sozial (ia) guztietan presente dagoen neurrian, ez du zentzurik hizkuntza-politika sail bakar batera mugatzeak. Zeharlerrotasuna ez da ideia berria gai honetan, baina, ideia izatetik harago, ibilbide gutxi eginikoa da.

UEMAk aspaldi jo zuen begiz, arnasguneetan hizkuntza garapenez hitz egitea hanka-motz geratzen zela. Eremu horietan garapen sozio-kulturaz eta sozioekonomikoaz kezkatu beharra dago, euskarazko arnasgune izaerari eutsiko bazaio. Politika konbentzionalaren ikuspegia gairiditzeko abiapuntu egokia izan daiteke. Garapen kultura, lurralde garapena, garapen ekonomikoa... langai duten politikek ere hizkuntza-politika egiten baitute dudarik gabe. Beraz, arnasguneek hizkuntza-politikaren ikuspegi miopearen gabeziak agerian uzteaz gain, UEMAk horri aurre egiteko oinarri batzuk mahai-gaineratu dizkigu. Hel diezaiozun eta sakondu dezagun bide horretan.

## **ARNASGUNEAK ETA PENTSAMENDU KONPLEXUA**

Hasieran aipatu bezala, iturri desberdinetatik edan genuen arnasguneei buruz jarduteko. Iturri aberats horietako bat, Edgar Morinek (1994) eskaini zigun pentsamendu konplexuari buruzko bere ekarpenen bidez.

Ez da hau pentsamendu konplexuan sakontzeko lekua eta espazio gehiago beharko luke horrek, baina, abiapuntuari helduta, ekintzarako, gure jarduna kokatzen laguntzeko baliagarri suertatu zitzaizkigun ikasgai edo ondorio batzuk ekarri nahi genituzke hona. Kontuan hartuta gainera, ikasgai hauek arnasguneen bilakaera ulertzen laguntzeko ere baligarriak suertatu zaizkigula.

Bide horretan murgilduta, arnasguneak sistema bezala ikusi ahal izan genituen. Sistema bizi eta ireki gisa. Sistema bizien eta hilen artean

bereizteko errazena herri bat eta motor bat konparatzea izan daiteke. Lehengoaren kasuan, bertako osagaiak (herritarrak) bere jatorrizko lekutik ateratzean, egoera berrira egokitzeko gaitasuna du. Motorreko piezak berriz, jatorrizko motorretik aterata ez du egokitzeko gaitasunik, funtzio bakar eta berbera soilik bete dezake. Bestalde, motorreko pieza guztiak desagertzean akabo sistema. Herrietan berriz, bertako sistema hiltzen eta biziberritzen ari da etengabe. Biztanleak hil eta berriak jaiotzen diren neurrian. Horrela, pieza guztiak aldatuta ere sistemak bere izaerari eusten dio etengabeko sozializazio prozesuaren bidez. Sistema irekiak direla diogu, berriz, inguruarekin, beste sistemekin hartu emana dutelako. Izatez, arnaguneen egoera aztertu dugunean azpimarratu bezala, egungo arnaguneetan inoiz ezagutu gabeko informazio eta energia fluxua ematen da. Errepide sareek, hedabideek, sare-sozialek, ... jendearen eta informazioaren joan-etorria areagotu dute inoiz ez bezala. Horregatik diogu egun ghattizazio kontuetaz hitz egitea arnaguneen inguruan, erabat lekuz kanpo, errealitatetik kanpo dagoela. Halako asmorik sekula izan ez den arren, izango balitz ere, ezinezkoa litzateke egungo nahiz etorkizuneko gizarte eredu<sup>5</sup>.

Kontuak horrela, zein bide, zein mekanismo izan ditzake sistema ireki batek bere izaera propioari eutsi eta kanpoko sistema handiago batean ez diluitzeko? Alegia, teoria honen eskutik, zein tresna izan ditzake arnaguneak bere izaerari eutsi eta sistema erdaldun nagusiaren baitan ez dadin asimilatua izan? Bada, bi helduleku nagusi dira aipagai: autonomia eta auto-antolaketa. Erraz ikus daitekeenez, elkar lotuta, nahasian eta harremanean agertzen diren alderdiak dira irekitasuna, autonomia eta auto-antolaketa. Erabat erlatiboak eta dinamikoak diren alderdiak dira gainera. Beraz eta arnaguneen egoerara itzulita, zertan dira alderdi hauek? Esan dugunez, egungo gizartean arnaguneen irekitasuna nabarmen handitu da. Autonomiari dagokionez, sistema horiek autonomia maila handia galdu dutela deritzogu. Sistema eta gobernu nagusiagoen baitan dago maila ohargarrian euren zerizan (lurren antolamendua, zerbitzuak, ...) ugariren inguruko esku-hartzea edota erabakimena. Auto-antolaketari dagokionez berriz, ez dago hain garbi esaterik herri horietan guztietan gertatu dena. Euren komunitate bizitza trinkotu ote den, euren harreman-hariak estutu diren hala ahuldu eta lasaitu diren esaterik ez dugu oro har. Aitortu behar dugu halere, egungo gizarte moldeak, harreman kate horiek arintzeko, likidotzeko (Bauman, 2003) joera dutela oro har.

Horiek horrela, nola interpreta liteke arnaguneen egoera pentsamendu konplexuaren teoriatik jasotako iragazki berri honen argitan?

---


***Konplexutasu-  
naren teoriaren  
argitan,  
autonomia eta  
auto-antolaketa  
indartzean koka  
dezakegu gakoa.  
Abstraktu  
xamarrak diren  
alderdi horiek  
indartzeko,  
horiek  
operatibizatze  
berriz, ondorengo  
tresna zehatzak  
balia litezkeela  
deritzogu:  
hizkuntza-  
politika eta  
autoeratze  
soziala.***

**Autoeratzeko sozial sendoko herriek, komunitate bizitza aberatsa dutenek eta euren herritarren arteko harreman trinkoak dituztenek, baldintza hobekak dituztela euren herriaren izaerari eutsiz egoera desberdinetara egokitzeko.**

Arnasguneen irekitasunak, autonomiak eta auto-antolaketa azken urteotan izan duten bilakaera aztertuta, logikak esaten digu, sistema horien ahultze bat gertatu dela. Kontuan hartu behar da gainera, urte hauetan guztietan, UEMAren sorreraz harago, ez dela sistema horiek indartzeko berariazko neurririk hartu. Beraz, joera orokorrak kontrario datozenean, ezin harritu halako emaitza batekin.

Halere, gertatu denaz baino gehiago, gertatu behar duenez kezkatzea dagokigu, nola aurre egin etorkizuneko arnasguneen egoera eze-gonkorrari. Zeintzuk dira arnasguneak indartu eta sistema osasuntsuak izan daitezen gako nagusiak? Azalpen xeheagoa hurrengo atalean egingo dugun arren, jar dezagun hemen modu eskematiko batean.

5. irudia. Arnasguneak indartzeko gakoak



Konplexutasunaren teoriaren argitan, autonomia eta auto-antolaketa indartzean koka dezakegu gakoa. Abstraktu xamarren diren alderdi horiek indartzeko, horiek operatibizatzeko berriz, ondorengo tresna zehatzak balia litezkeela deritzogu: hizkuntza-politika eta autoeratzeko soziala, hain zuzen. Jarraian aletuko dugu proposamena zehatzago.

## ONDORIOAK, AURRERA BEGIRA

I

Esandako guztien ondotik, saia gaitezen argi pixka bat mahai gainera-tzen. Aldapak eta nekeak aurrerago ere izango ditugun arren, gure Urbiak sendotzeko proposamenak mahai gainera nahi dira hemen. Proposamenak, eztabaidagai eta osatzeko abiapuntu gisa, noski. Hona beraz, lau proposamen:

**1. Autoeratze soziala indartzea.** Gure ustez ezinbesteko abiapuntua da, arnaguneen autoeratze soziala areagotzea. Zenbait esperientziak<sup>6</sup> erakutsi digute autoeratze sozial sendoko herriek, komunitate bizitza aberatsa dutenek eta euren herritarren arteko harreman trinkoak dituztenek, baldintza hobeak dituztela euren herriaren izaerari eutsiz egoera desberdinetara egokitzeke. Norabide berean koka genitzake Zalbideren hitzak erabiliz Community fostering-a (Zalbide, 2003), Txepetx-en hizkuntza komunitatea trinkotzea (Carrrión, 1987) edo Freireren irakaspenei segika, ahalmentzea. Finean, herritarren kontzientzian, konpetentzian eta eraketa edo antolaketan sakontzeaz ari garela esango genuke. Bide horretan, Kontseiluko arnaguneen lan-taldeak tailer batzuk landu eta UEMAK hainbat herrietan eskaini ditu<sup>7</sup>. Tailer horien bidez, herritarrak arnaguneak zer diren, zergatik diren garrantzitsuak eta nola indartu litezkeen izan da langai. Aletxo bat beste hainbaten aurrekari izan beharko lukeena.

**2. Arnaguneen hizkuntza-politikarako eskuduntza zabaltzea.** Aurrez azaldu bezala, hizkuntza-politikaren ikuspegia zabaltzetik abiatu behar dugu. Arnaguneen hizkuntza-politikaz hitz egitean ezin da hizkuntza-politika sailetik bideratutako politikei buruz soilik hitz egitera mugatu. Beraz, arnaguneek bestelako politiken inguruan zeresana izan beharko lukete. Izatez leku egokiak izan litezke arnaguneak hainbatetan aipatu izan den hizkuntza-politiken zeharlerrotasuna abian jartzeko.

Horretaz gain, ez genuke aipatu gabe utzi nahi, azken boladan gero eta gordinago ageri zaigun estatuen esku-hartzea. Estatu aldetik hizkuntza-politika aurrerakoiak oztopatzeko eta arlo horretan beraien nagusikeria erakusteko joera nabarmendu da azken boladan<sup>8</sup>. Bada garaia, arnaguneak indartzeko eta euren autonomia maila areagotzeko, horrela, hizkuntza-politikari dagozkion erabaki ausartak hartzeko eskumen eta autonomia handiagoa emanez eta horri aurre egiten dioten kanpoko interesei irmoki erantzunez.

Horrek, ezinbestean, tokiko administratziotik administrazio orokorrerako koordinazioa, hobetzea eta eraginkortzea, eskatzen du.

**3. Arnaguneetan eragina duten egitasmoak arreta bereziz zaintzea.** Maila handi batean aurreko atalean aipatutakoari lotutako kontua dugu. Uste dugu ordea, berariazko neurriak hartu behar direla arnaguneetan egin beharreko edozein egitasmok (etxebizitza berriak, lantoki berriak zabaltzea, merkataritza-guneak...) izan ditzakeen ondorio soziolinguistikoak ezagutzeko eta balizko kalteak ekiditeko. Beti dira eraginkorrakoak prebentzio neurriak, ondoren, ahalegin

---

***Bide horretan, Kontseiluko arnaguneen lan-taldeak tailer batzuk landu eta UEMAK hainbat herrietan eskaini ditu.***

***Leku egokiak izan litezke arnaguneak hainbatetan aipatu izan den hizkuntza-politiken zeharlerrotasuna abian jartzeko.***



**Berariazko neurriak hartu behar direla arnasguneetan egin beharreko edozein egitasmok (etxebizitza berriak, lantoki berriak zabaltzea, merkataritzaguneak...) izan ditzakeen ondorio soziolinguistikoak ezagutzeko eta balizko kalteak ekiditeko.**

eta inbertsio handiagoa suposatzen duten neurri aringarriak baino. Ohiko adibide argia da, babestutako ingurune naturalena. Hauetan, ezein egitasmok egiteko ingurugiro azterketak eta balizko kalteen araberrako egokitzeko neurriak ezartzen diren modu berberean jokatu beharko litzateke arnasguneetan, bertako ezaugarri sozio-linguistikoez ez dezaten kalterik jasan.

**4. Arnasguneak hedatzea.** Aurrez aipatu bezala, erdarazko sistemengandik gertuen eta hartu-eman estuagoan dauden neurrian, arnasguneek euren izaerari eusteko zailtasun gehiago izango dituzte. Horregatik, arnasguneen inguruan arnasgune berriak osatzen edo hedatzen diren neurrian, euren izaerari eusteko aukerak biderkatzen dira. Arnasguneek inguruan are eta arnasgune gehiago izanez gero, nolabaiteko eustorma, metaforikoa noski, are eta urrunago jartzen ariko ginatete. Horrela, erdal sistemekin beharrean, arnasguneek euren artean hartu-eman, igurtzi ugariagoa duten neurrien, euren arteko harreman-sareak areagotzen eta trinkotzen dituzten neurrian, arrisku hori murrizten da. Hemen dugu erroka nagusia.

Gainera, ikuspegi sistemikotik begiratuta, kontuan hartu beharko litzateke arnasguneetan bizi den jendeak geroz eta gehiago euren bizitzaren parte handi bat horietatik kanpo igarotzen duela (lanean, erosketetan, aisialdian...). Horregatik, arretaz ezagutu beharrekoak lirateke, arnasguneetako jendearen eguneroko biografia horiek. Ibilbide horiek arnasguneen hedapenerako lehentasunak jartzen lagun baitezakete. Azal dezagun adibide batekin: inguru euskaldun bateko umeek eskualde-burua den herrian dagoen kiroldegira jo beharko balute eta bertako zerbitzua erdalduna balitz, lehentasuna izan lezake kiroldegia arnasgune soziofuntzional izateko ahalegina egiteak.

Adibide hutsa izan arren, hemen azpimarratu nahi dena zera da, arnasguneetako jendearen eguneroko bizi-ohiturak, mugikortasun-ohiturak eta erdarazko input-ak nondik jasotzen dituzten jakitea, biziki interesgarria dela eta lehentasunak jartzeko ere informazio argigarria izan daitekeela.

Horretaz gain, esango dugu, arnasguneen hedapen prozesuak, normalizazio prozesuak finean, aurrera egitea dela biderik eraginkorrena egungo arnasguneak eta etorkizunekoak indartzeko eta osasuntsu mantentzeko.

Hortaz, euskaldunok mendizale fama alferrik irabazia ez dugun arren, mendiko malda malkartsuetan gora gustuz joan gaitezela eta ez halabeharrenez eraginez. Horretarako, Urbiak ugaritu daitezela gure inguruetan, euskaldunon ibilaldi erosoan eta gozagarrien asegarri. ●

## OHARRAK

1. Oharra: artikulua hau 2014ko urtarrilaren 17an Donostian 'Lurralde eta Hizkuntza. Hizkuntza eta Lurralde' jardunaldietan eginiko aurkezpenean oinarritua dago. Aurkezpen hori osatu eta egokitu da artikulua honetarako.

2. BDUBDA Estrés linguistikoa. <https://www.youtube.com/watch?v=lGfydvpa3Vk>

3. <http://udalbiltza.info/eu/euskal-herriari-begira>

4. <http://www.udalenhizkuntzapolitika.org/index.php>

5. Ghattizazio hipotesiaren zentzugabekeria argi eta gordin azaltzen duenez, Zalbide be-  
raren hitzak ekarri ditugu ona: arnagunea ez da ghettoa. Hala nahi izanik ere, ez leukake  
izaterik. Arnaguneetako hiztunen bizimodua erdal eraginaren pean dago egungo egu-  
nean, goizean goiz hasi eta oheratu arte. Uste al du inork, akaso, erdarazko telebistatik,  
irratirik, internetik, periodikorik, bisitaririk eta lan-harremanik gabe bizi direla arnagune  
horietako gaurko biztanleak, beren herri-zokotik kanpora atera ere gabe? [...] Etxe askotan  
bi auto dituzte, neguan eskiatzera joaten dira hainbat eta udako bakazioak beste herritarrok  
bezain urrun egiten dituzte sarri. Bigarren edo hirugarren sektorean lan egiten dute, guz-  
tiek ez bada ia guztiek. Baserrian bizi diren asko ere ez dira baserrietik bizi, industriatik  
edo zerbitzu-sektoretik baizik. Hots, modernizazio ekonoteknikoaren zurrunbiloan sar-  
turik daude arnaguneetako bizilagunak: kaletarrok bezain sartuak, hor nonbait. Erdaraz  
ondo dakite guztiek eta, euskarazko jarduna zentrala bada ere beren eguneroko bizian,  
askotan egiten dute erdaraz. Hala segituko dute gero ere arnaguneetako bizilagun gehie-  
nek, bizi diren artean. (Zalbide, 2009: 39)

6. Ikus Zerainen kasua: [https://www.youtube.com/watch?v=4HA6dS8AK1g&feature=em-upload\\_owner](https://www.youtube.com/watch?v=4HA6dS8AK1g&feature=em-upload_owner) (45:50 minututik aurrera)

7. <http://www.uema.org/herritarrentzako-zerbitzuak/arnaguneen-tailerrak/>

8. Kontseilua (2014). *Kontseiluko zuzendaritzak Estatu espainiarraren esku-hartzeen aurrean herritarrei erantzuteko deia egin die*. [http://kontseilua.org/index.php?id\\_saila=54&id\\_edukia=583&lang=eu](http://kontseilua.org/index.php?id_saila=54&id_edukia=583&lang=eu)

## BIBLIOGRAFIA

Anaut D. (2014). "Egunen gurgilean Soziolinguistika". In *Jakin Aldizkaria* 200. Zenbakia.

Bauman Z. (2003). *Modernidad líquida*. Editorial Fondo de Cultura Económica, México DF.

Bengoetxea X. (2012). *Arnaguneak. Ezaugarriak. Zenbait Arnaguneraren Egoeraren Behaketa*. HIZNET. [http://hiznet.asmoz.org/images/stories/ikerketak\\_lanak/2012/HIZNET\\_Arnaguneak.pdf](http://hiznet.asmoz.org/images/stories/ikerketak_lanak/2012/HIZNET_Arnaguneak.pdf).

Garate G. (2006). *Euskararen egoera aztertzen*. [http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1155125524](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1155125524)

Gramsci A. (2007). *El materialismo histórico y la filosofía de Benedetto Croce*. Santiago de Chile Editorial Popular La Pajarilla.

Lakoff G (2007). *No pienses en un elefante*. Madrid. Editorial Complutense, S.A.

Morin E. (1994). *Introducción al pensamiento complejo*. Gedisa.

Odrizola J.M. (2011). "Euskal purgatorioa iraungi zenekoa". In *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 79-80:215-222 zenbakia.

— (2012) *Hizkuntzaren altzokoak gara*. Arabako Foru Aldundia.

---

**Kontuan hartu beharko litzateke arnaguneetan bizi den jendeak geroz eta gehiago euren bizitzaren parte handi bat horietatik kanpo igarotzen duela. Horregatik, arretaz ezagutu beharrekoak lirateke, arnaguneetako jendearen eguneroko biografia horiek. Ibilbide horiek arnaguneen hedapenerako lehentasunak jartzen lagun baitezakete. Azal dezagun adibide.**

- Thomas, W. I., & Thomas, D. S. (1928). *The child in America: Behavior problems and programs*. Knopf.
- Sánchez Carrión J.M. (1987). *Un futuro para nuestro pasado*. Donostia, Elkar.
- Soziolinguistika Klusterra (2011). *Euskara Sustatzeko Komunikazio-Ekimenak. Oinarrizko Gida.lerroak*. Andoain Soziolinguistika Klusterra. <http://www.soziolinguistika.org/es/komunikaziogida>
- Zalbide, M. (2003). *Ahuldutako Hizkuntza Indarberritzea: teoriak zer dio?*. [http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1056974834](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1056974834)
- (2009). *Aurrez aurreko jardunaren lekua HINBE-saietan*. In Udaltop. Lasarte-Oria. <http://www.elkarrekinberritzen.net/fitxategiak/dokumentuak/dokumentazioa/aurrez-aurreko-jardunaren-lekua-hinbe-saietan-2.pdf>